# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

## 60

*AGINDUA, 2012ko abenduaren 11koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izendatzeko dena, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako Teknikariaren aukeran. Irailaren 23ko 161/2008ko Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioak izendatzeko 2008ko lan-eskaintza publikoa onartu zen.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioen 2008ko lan-eskaintza publikoa 2008ko irailaren 23ko 161/2008ko Dekretuaren bidez onartu zen. Lan-eskaintza horretan, Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako Teknikari plaza bat eskaini zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, eta dagokion hautaketa-prozesuaren bidez bete behar da.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren bidez, aipatutako lan-eskaintza publikoan karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onartu ziren, eta Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko irailaren 13ko Aginduaren bidez, hautaketa-prozesua deitu zen, eta deitutako kidegoari dagozkion berariazko oinarriak eta gai-zerrenda onartu.

Hautaketa-prozesua amaituta, eta hautatutako pertsonak eskatutako agiriak epe barruan aurkeztuta (agindu honen I. eranskinean ageri da pertsona hori), dagokion kidegoko karrerako funtzionario izendatzen da.

Halaber, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 52.2 artikuluaren arabera, behin betikoa izango da esleitutako lanpostu hutsetara sartuko diren funtzionarioen atxikipena, haiek egindako hautuekin bat, eta hautatutakoen behin betiko zerrendan eskuratu duten ordenaren arabera. Atxikipen hori, gainera, lanpostuok betetzeko sistemaren bidez lortutakotzat hartuko da ondorio guztietarako.

Adierazitako guztiagatik, eta Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren 11. oinarrian xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Karrerako funtzionario izendatzea 2008ko irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren bidez deitutako enplegu publikoko eskaintzaren hautaketa-prozesuan hautatutako izangaia (ikus I. eranskina). Irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren bidez, 2008ko enplegu publikoko eskaintza onartu zen.

Bigarrena.– Agindu honen eranskinean aipatzen den pertsona 2013ko urtarrilaren 9an jabetu beharko da esleitu zaion lanpostuaz.

Hirugarrena.– Egun horretan lanpostuaz jabetzen ez bada, eta jabetzea eragozten duen halabeharrezko arrazoirik ez badago, galdu egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko eskubideak, deialdi horretatik eratortzen direnak.

Laugarrena.– Esleitutako lanpostuetara sartu berri diren langile funtzionarioak behin betiko atxikita geratuko dira, eta atxikipena lanpostu horiek betetzeko sistemaren bidez lortutakotzat joko da ondorio guztietarako.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke berau eman duen organoaren aurrean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 11.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

KARRERAKO FUNTZIONARIO IZENDATUTAKO IZANGAIEN ZERRENDA

LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

| NAN | Izen-abizenak | | |
|---|---|---|---|
| 13135824 H | Sierra | Murillo | Jesús Ángel |